

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Alberdi Aldalur

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Odria auzoko Arauntza baserrian jaio zen 1933an. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, errezildarra, Beamako Agerre baserrikoa. 11 senide izan ziren. Azpeitiko esklabetan ibili zen eskolan, baina gazterik ama hil eta neskame joan zen. Azpeitiko Etxaun baserrira ezkondu eta bost seme-alaba izan zituen. Baserritik bizi izan da beti, senarra nahiko gazte hil zitzaion, baina hala ere ganaduarekin jarraitu zuen koinatuen laguntzarekin.

Zintak

AZP-092

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Eli
- **Data:** 2012-06-18
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirre, Eli

Pasarteak

1. "Hori den iriñe alperrik gastatzie!"

- **Erref:** AZP-092/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Bittori, ahizpa zaharragoa, gazta egiten zen abila. Taloa egiten Juanita, eta bera, berriz, ogia egiten. Ama hil zenean, bera hasi zen ogia egiten, hasieran ez zitzaion ateratzen, baina gero ez zitzaion gehiago txarrik atera. Ogizalea izanik, jan ere gehiena berak jaten omen zuen.

2. Kilometro eta erdi, ura etxera ekartzeko

- **Erref:** AZP-092/004
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:03:04. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Bakoitzak bere lanak hartuta izaten zituen. Mezetatik etxera joanda, bakoitzak bere lana egiten zuen. Astegunetan, berriz, astoarekin joaten ziren "Manteka"ko iturrira, kilometro eta erdiko bidean. Udan ere, ganaduekin joaten ziren, haiei edanaraztera.

3. Ama hil eta ahizpak haren postua hartu

- **Erref:** AZP-092/006
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ama oso gazte hil zen, 52 urterekin. Orduan Marik 13 urte zituen. Ahizpa gazteena jaio zenean konturatu ziren minbizia zuela, eta gerora hil zen. Aitona-amonik ez zuen ezagutu; etxean senideak bizi ziren, eta Bittori ahizpak egin zituen amaren lanak, hura hil zenean.

4. Alde baten aberatsak eta bestean pobreak

- **Erref:** AZP-092/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Ez daki familia noiztik bizi zen Arauntzan, baina bai garai batean baserria bi bizitzakoa zela. Fatxadaren alderdi bat bestea baino hobea zelako, batean aberatsak eta bestean pobreak biziko zirela esaten aritzen ziren euren artean. Etxeak lau logela behintzat bazituen, handienak 3 ohe zituen, anaien logela zen hura.

5. Azterketetan, janaren truke kopiatzen utzi

- **Erref:** AZP-092/011
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan azterketa garaian, kalekoekin tratua egiten zuten. Kaletarrak goseak amorratzen egoten ziren eta sagarren edo ogiaren truke kopiatzen uzten zieten. Kanean gosea omen zegoen, baina beraiek ez zuten horren kezkarik izan.

6. Soroan lanean ari zirela hil omen zituzten zenbait herritar

- **Erref:** AZP-092/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Ez da gerraz oroitzen, hiru urte besterik ez zituen-eta. Baina gogoan du amak nola esaten zien, hegazkinak sumatzen bazituzten etxera azkar etortzeko. Antoniok, anaia zaharrenak, zazpi urte eman zituen gerran, Madrilén, ia etxera etorri gabe. Enparangainen soroan lanean ari zirela nola hil zituzten zenbait herritar kontatzen omen zuen aitak.</p>

Transkripzioa

- Gerrie [...] zeoze...?
- Ez, ni gerrie, zaonien, nik hiru urte o eukiko nitun. Ni akordatzén naiz gure amak-eta esaten ziguela: "Etorri zaitezke aguro etxea, etxea etorri zaitezte azkar!". Hóla, abioien-ta zea sentitzen zanin ta. Baiño bestela, ez naiz / enaiz/ akordatzén. Gero, lehenenguen, eskursiyuen jun giñenien, erakutsi zizkun Gernikako zea hoiek. Ze txikiziyo inda ta. Ba bai.
- Ta senide zaharrouek esanda o zeoze?
- E?
- Senide zaharrouek-eta kontauta o gerrako garaie...
- Bai, Antonio, anaie, eon zan urte... zazpi urtin eon zan hure, gerran. Bai.
- Inguru hartatiken jende asko jun zan?
- Eztakit nik zenbat jende jungo zan. Gure aittek esaten zun, zea, sorun ari zila´re nola hil zituen, ta eztakit ze ta jarduten zuen. Enparangainen ta.
- Enparangainen?
- Bai. Eta gurie Madril alde hortan eon zan. Zea, Antonio. Eta harek zazpi urte pasa zitun. Iye bate etxea etorri be. Han bazeuden Alabierkuk o parientiek, eta haien etxea erretirauez, libratzen zanin. Bai, gogorra, gogorra. Ba hoixe!
- Ta ordun goseik zuek ez zenuten pasau.
- Ez. Ni ez naiz akordatzén zeakin. Oiñ zaharrouek gogun eukiko debe / eukikobe/, baiño, nik ez. Nik [horixe] dauket, umetako kontu horixe. Eta... Gero esan iten zituela eztk danak, baiño...
- Aitzie bakarrik.
- Bai, holaxe.

7. Behiak biltzea emakumeentzat gogorregi

- **Erref:** AZP-092/016
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Arauntzan larreko behiak izaten zituzten. Behi pintoa ere jarri zuten, esne gehiago izateagatik, besteek gutxi izaten baitzuten. Bera ez zen aritzen behiak biltzen, aita-edo biltzen zituen. Ezkonduta, berriz, senarrak ez zion uzten lan hori egiten, emakumeentzat lan gogorregia omen zen. Gizonak ukuiluko lanak egin bitartean berak sukaldeko lanak zuzentzen zituen, eta gero esnearekin bera jaisten zen kalera.

8. Jende "kapritxosoak" ardi-esnea nahi

- **Erref:** AZP-092/017
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:18:27. **Bukatu:** 00:19:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Arauntzatik ardi-esnea ekartzen zuten kalera, "jende kapritxosoari", mamia egiteko. Ez zen esne askorik izaten, 10 edo 20 litro inguru. Batzuk baziren, igandero-igandero hartzen zutenak. Horretaz aparte, ez zuten kalera baserriko produkturik saltzen.

9. Egunean jositako soinekoarekin festara

- **Erref:** AZP-092/018
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:19:23. **Bukatu:** 00:21:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Ama zenak artilea egiten zuen, horretarako makina bat zuen. Beraiek ez zioten lan horri jarraitu, baina artilezko galtzetak egiten bai, asko aritu izan dira. Abarkak eta galtzerdiak, soinekoren bat eta aurreko mantala izaten ziren orduko arropak. Kalerako, zerbait hobe bazen, huraxe. Behin Martirietara egunean bertan jositako soinekoarekin joan zen.

10. Ijitoak eta apaizak etxean

- **Erref:** AZP-092/020
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan-eta barre asko egiten zuten, denak elkartzen zirenean. Behin ahizpa gazteena, ijitoz jantzita atera zen afalondoan. Beste anaiak, Anjelek, berriz, meza eman omen zuen, anaia batek lagunduta, beren logelan. Orduan lasai egiten omen zuten barre.

11. Orduko janariak eta amaren postreak

- **Erref:** AZP-092/022
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:22:16. **Bukatu:** 00:24:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan denak elkartzeko ohitura zuten, bestela ez zuten egun jakinik. Gabonetan, ordea, neskame eta morroi joandakoak-eta etxera bueltatzen ziren. Gainera, turroia ekartzen zuten eta gustura egoten ziren. Horrelako egunetan zer jaten zuten kontatzen du. Ama esnezko postreak egiten zen ona, ahizko pastelak eta torradak esaterako. Ez zuten goserik pasa beraiek. Baserrian beti izaten zen babarruna eta patata behintzat; luxurik gabe, baina goserik ere ez. Txerria ere hiltzen zuten, eta ardikia, berriz, urte guztian izaten zuten.

12. Lanean baina umore onez

- **Erref:** AZP-092/023
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:24:31. **Bukatu:** 00:25:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Lehen aldiz irratia ahizpak ekarri zuen. Larunbatean sukaldeko apala txukundu eta igande goizean jarri zuten. Hura entzuten, ez zuten lanerako gogorik orduan. Arto-zuritzerakoan logelatik mahaitxo atera eta han jartzen zuten. Ganbaran kuadrilla elkartzen ziren, auzokoak-eta. Txistek kontatu eta ateraldi ederrak izaten ziren.

13. Umeak astoarekin errotara; estraperloa

- **Erref:** AZP-092/025
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:27:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Artoa eta garia ugari izaten zen orduan. Arauntzatik Estrara joaten ziren errotara, umeak, astoari lepoa zuzendu ezinik ibiltzen ziren aldapan behera. Beste batzuetan Lasaoko Alberdikora joaten ziren. Estraperloa ere bazen, eta gauez ibiltzen ziren; bera ez, baina, anaiak bai. Hala ere, herrian omen zeuden lapurrik handienak, herriari entregatutakotik lapurtzen aritzen zirenak ba omen ziren.

14. Lursailen izenak. Arroitzako erromeria

- **Erref:** AZP-092/029
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:31:54. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Arauntzan lursail asko ziren, ez oso onak baina asko bai. Hango lurren izenak aipatzen ditu. Etxaungo lurren izenak ere gogoan ditu. Arauntza esan arren, baserritik gorago dagoen mendia Arroita dela esaten du. Arroitan, San Ferminetan egiten zen erromeria, baina gutxi iraun zuen. Hara joaten zirenei afaria ematen zieten ahizpak eta. Zestoako lehengusuak, hara erromeriara joan eta Santa Engrazi aldetik bueltatu beharrean Lasaora jaitsi eta handik berriz Aizarnara. Bera ez zen izan oso dantzaria.

15. Aita Hernio zalea edo ardi zalea

- **Erref:** AZP-092/030
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Ez daki zergatik zuen aita Herniorako zaletasuna, mendian bizi zelako ala ardiak gustatzen zitzaizkiolako. Hara joanda ere, ardiak ikusten ibiltzen omen ziren. Goizeko seietako meza entzun, etxera bueltatu eta jateko zerbait hartuta, Sainu gainetik joaten ziren Herniora, urtero. Aita San Antonio zalea ere bazen, urtean-urtean ume bat eramaten zuen hara, ama ere joaten zen. Ama hil zen urtean, bera joan zen aitarekin, beltzez jantzita. Lutoa nola izaten zen, osaba-izebena hiru hilabete eta gurasoena urtebete edo gehiago. Donostiako estropadetara ere joaten zen aita urtean behin, Urolako trena hartuta.

16. Poltsikoan gazta eta ogia

- **Erref:** AZP-092/038
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:44:39. **Bukatu:** 00:45:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Goserik ez zuten pasa. Lehengusu batek oraindik ere esaten dio, zenbat gazta jandakoa ote den bera. Baserrian, mantalaren poltsikoan beti ogia eta gazta izaten omen zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com